


Plaza zabaltzen

iñaki Eizmendi *Basarriren* ekarpen nagusi izan omen zen bertsolaritza sagardotegitik antzokietara eramatea. Ez dakit zerk eragin zidan burutazioa baina erakargarri iritzi nion bertso-plaza zenbateraino zabaldu den neurtzeari. Non-nork-noizetan abiatu, pasadizo zerrenda polita osa daiteke. Kirolak gurean duen garrantzia erabatekoa izanik, gogoan dut euskal talde batek lehen aldiz Europako Txapelketa bat irabazi zuenarik, entrenatzaileak, Juantxo Villarreak, bertso baten bidez agurtu zituela Irungo Unzaga plazako zaleak. Kursala inauguratu zela, lehen ekitaldiko lehen jarduna bertsoan egin zuten artean neska-mutiko zirelarik, Maindi Murua eta Beñat Gaztelumendik. Anoetan ere aritu izan gara; baita San Mamesen ere. Zazpi Nobel saridunen aitzinean aritutakoak gara. Zarauzko hondartza denboraldi ofizialaren bukaera bozgorailuetatik bertsoan iragarri zuen Felix Zubiak Gurutze Gorriko egoitzatik... Mila egokiera, liburu batean biltzen asmatuko bagenu, lekukotza soilaz gaindi zerbait iradokiko liguketenak.

Ito larria

Jendaurrean azaldu behar duen edonork sentitu izan du noiz edo noiz. Bihotz-taupadak areagotu egiten dira itxuraz. Ahoa lehortu. Eta zangoetan dardara sentitzen da. "Ez al zarete urduri jartzen bertsoak kantatzear?" Batean eta bestean behin eta berriz egin izan diguten galdera da. Eta baietz erantzuten



irudiak:
Antton Olariaga



DANI BLANCO

«

Behin froga egindakoa naiz:
pulsometroarekin burutu nuen bertso-
saioa. Minutuko 160 taupadako ustea
nuen unean, 92 baino ez zizkidan
markatu. Zutik eta ibilian noanean
adinaxe. Ondorioa: estuasunean buruak
agintzen du, eta ez bihotzak, besterik
dirudien arren

»



dugu, adinaren poderioz ikasi egiten dela kirio-dantzari eusten, baina sabel-zuloko txulo hori beti hor egoten dela gerora ere. Zenbait unetan eta bakarka gai bati erantzuten ari gatzazkiola, esate baterako, bihotza eztairitik irten beharrean sentitzen dugu. Ez da ordea, sentsazioa baino. Behin froga egindakoa naiz: pulsometroarekin burutu nuen bertso-saioa. Minutuko 160 taupadako ustea nuen unean, 92 baino ez zizkidan markatu. Zutik eta ibilian noanean adinaxe. Ondorioa: estuasunean buruak agintzen du, eta ez bihotzak, besterik dirudien arren.

Eme

Korrika dela eta AEKren eskutik euskal emakumeei omenaldia egin genien Kursalean, hizkuntzaren transmisioan burutu duten lana gorestekoa. Maialen Lujanbio eta biok ginen joatekoak baina hernaniarrak ezin izan zuen eta bakarrik suertatu nintzen oholztan ikuskizunaren zuzendari zen Eneko Olasagastiren esanetara. Barruko ahots emea ateratzea nuen agindu. Saiatu nintzen. Lortu nuen ez dakit. Baina San Ovidioren etorri zitzaidan gogora. Herri txiki batean, sute handi

baten ondorioz, ermita guztiz erre omen zen. Herriko zaindaria zen San Ovidioren irudia ere bai. Orduan, alkateak abian jarri zituen ermita berreraikitze lanak, eta San Ovidioren irudi berria egin ahal izateko baserritar bati eskatu zion ekar zezala pago-ipurdi bat dotorea. Ekarri zuen basotik. Eraiki zuten ermita eta egin zuen artista batek San Ovidioren irudi berria. Herritar guztiak bildu ziren ermitaren eta aldareko santu irudiaren inaugurazio ekitaldira; baserritarra salbu. Apaiza konturatu baserritarra ez zela azaldu eta hurrengo batean topo egin zutenean, kargu hartu zion:



'Gaur egun, lan egitea iraultzailea duk, motel!'. Ez dakit hainbesterainokoa den

baina badu egiatik zerbait.

Hainbeste bitartekari sumatzen dut

inguruan! Hainbeste eragile!

Hain egile gutxi! Aisia-tartea sakralizatu

egin dugu, garai batean lana

sakralizatu zen gisara



– Lehengoan denak hemen ziren San Ovidio gurtzera etorriak. Zu ez zinen azaldu. Zergatik?

– Nik artean pago-ipurdi zela ezagutuko nuelako.

Marttitte

Santuekin ari garenez, mordoska bat batera hartzea baino hoberik ez da, den denak aipatu beharrik ez izateko. Azkoitiko auzoa da Marttitte, gazteleraz Los Mártires, bide-txartelen batean jartzen duenaren arabera. Euskarazko izenaren bustidurak harrituko du zenbait. Gaztelerazko izenaren potoloak beste asko. Marttitten bertsotan izan ginelarik, gogoeta gai bat ekarri nuen etxera: hirietan bizi diren umeek –eta helduek– ez dute arrastorik herri txikiei buruz. Herri txikietakoek badakite hiriei buruz, aldiz. Eta paradoxa batekin egin nuen topo: inguruneko herriak eta auzoak ezagutzeko, umetan mendira joatea bezalakorik ez da. Erdi purrustaka joango ginen, baina Aralar aldera zihoa-nak ikasiko zuen non zen Tolosa, non Amezketa, Gorriti, Huitzi... Edo Irimora zihoa-nak Urretxu eta Zumarragaren berri izango zuen...

Lana

Elkargi-koei hitzaldi bat eman diet duela gutxi. Urruti gertatzen zaidan mun-



dua da txanpon, berme eta enpresa-egitasmoen hori. Baina lana hizpide dela, adiskide batek bota berri didan esaldia burutik uxatu ezin da nabil: "Gaur egun, lan egitea iraultzailea duk, motel!". Ez dakit hainbesterainokoa den baina badu egiatik zerbait. Hainbeste bitartekari sumatzen dut inguruan! Hainbeste eragile! Hain egile gutxi! Aisia-tartea sakralizatu egin dugu, garai batean lana sakralizatu zen gisara. Aldamenekoak baino gutxiago egitea dela helburu pentsa daiteke askotan. Eta gaitzerdi aisia-tartea modu irudimentsuan erabiltzen bagenek. Nago, telebistari begira xahutzen dugula, ezezkoa esaten dugunok ere.

Aingeru Goardakoa

Zaindariarena gero etorri zela uste dut. Umetatik martxoaren lehenari –martxoak 1– Aingeru Goardako deitu izan zaio gure jiran behintzat. Txikitatik dut gogoan eguna, eta ez arrazoi erlijiosoengatik. Askoren idolo kuttun zen Joxe Anjel Iribarren jaioteguna delako iltzatu zitzaidan gogoan. Azken hamabost



Marttitten bertsotan izan ginelarik,

gogoeta gai bat ekarri nuen etxera:

hirietan bizi diren umeek –eta helduek–
ez dute arrastorik ere herri txikiei buruz.

Herri txikietakoek badakite

hiriei buruz, aldiz



urtean Donostiako Ibaetako Aingeru Goardakoaren ermitan ospatzen dugu, bertsotan. Toki berezia da. Bidetik hain urrun eta autobidetik hain gertu; urtean zehar hain pasadako eta egun horretan hain bilgune; handitik hurbil hain txiki... Hiriko jende edadetua eta umeak joaten dira aldapan gora ermitaraino. Eta bertako auzoak. Erromeria izaten da, antigoal era-koa. Erroskilak salgai. Gorriti eta animaliak. Ez Donostian bakarrik. Tolosako San Blas auzoan ere izan ginen otsailaren hasieran. Tankera bereko kaskoa da. Tankera bereko erromeria, erroskila eta guzti. Itzaltzera doan mundu mota baten azken arrastoak. n